

OHIKO GALDERAK AISIOLAKO PRAKTIKAK

- **Zein dokumentu aurkeztu behar ditut Aisiolan praktikak burutu ondoren?**

Hiru dira sinatu beharreko orriak:

- 1.- Asistentzia orriak
- 2.- Ebaluazio orria
- 3.- Titulu eskaera

Oso gomendagarria da jaso dituzuen dokumentuak eskaneatzea, galdu ezkerro berri inprimatu ahal izateko.

Hauetz gain, memoria bat aurkeztu behar da. Memoria egiteko [gidoia](#) emailaz jaso duzue. Memoriaren dokumentua www.aisialdia.eus atarian duzuen formularioan (<https://www.aisialdia.eus/aisiola>) erantsi beharko duzue.

- **Non aurkeztu behar ditut agiriak?**

Ikastaroa egin dudan ikastolako idazkaritzan utzi behar ditut 3 agiriak, gutunazal itxi baten.

- **Nola/non sinatu behar dira agiriak?**

- 1.- Asistentzia orria: hutsunea duten **gelaxka guztiak** sinatu behar dira (x batekin markatuta daudenak ez). Ikasleaz gain, tutore eta zuzendariak ere sinatu behar ditu orri hauek.
- 2.- Ebaluazio orria: udalekuko tutoreak baloratu eta sinatu behar du. Balorazioa 0-10 eskalan egin behar da. Ezinbestekoa da zigilua jartzea.
- 3.- Titulu eskaera: ikasleak sinatu behar du.

- **Noiz aurkeztu behar dira dokumentuak?**

2019ko iraileko lehen astean aurkeztu behar dira. Ezinbestekoak dira 3 dokumentuak, Begirale titulua tramitatu ahal izateko.

- **Praktikaldian zenbat huts egite egin ditzaket?**

Gehienez orduen %25 utzi daitezke egin gabe. Hutsegiteak gehiago badira, ikasleak ez du praktikaldia gaindituko eta ondorioz ez du titulua eskuratuko. Huts egitea arrazoi justifikatua izan arren, Lanbidek ez ditu onartzen. Kontuan hartu beraz.

- **Zalantzak argitzea:**

Edozein argibide behar izanez gero idatzi praktikak@ehi.ikastola.eus helbidera, eta gaien "Praktikak Aisiola" jarri. Abuztuan ostiraletan jasoko dituzue zuen galderen erantzunak.